



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2014KO URTARRILAREN 28AN  
GOIZEKO 8:40EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Mertxe Aizpurua Arzallus.

**Zinegotziak:** Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

**Idazkaria:** Nagore Sarasola Otermin.

**Ezinetorria adierazi dute:** Jose Maria Rivadeneyra Siciliak eta Josu Portu Alzagak.

**1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2014/01/14KO OHIKO BILKURA.**

Batzarkideek, 2014/01/14ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- GAPI SEALIN SYSTEM, S.L.U. ENPRESARI, OSINALDE INDUSTRIALDEKO ONDARZULO KALEA 7AN POLIAMIDA EDO POLIURETANOZKO PIEZA ZILINDRIKOAK JUNTURA TORIKOETAN BIHURTZEKO ETA PIEZA HAUEK BILTEGIRATZEKO JARDUERA EZARTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.**

GAPI SEALIN SYSTEM, S.L.U. enpresak aurkeztutako eskaera aztertu dut (Esp. Zenbakia: HZ.07/2012-0322). Bertan, Osinalde industrialdeko Ondarzulo kalea 7an poliamida edo poliuretanozko pieza zilindrikoak juntura torikoetan bihurtzeko eta pieza hauek biltegiratzeko jarduera ezartzeko udal baimena eskatzen du.

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2012-0322

ESKATZAILEA: GAPI SEALIN SYSTEM, S.L.U.

JARDUERA MOTA: Poliamida edo poliuretanozko pieza zilindrikoak juntura torikoetan bihurtzeko eta pieza hauek biltegiratzeko jarduera

NON KOKATUA: Ondarzulo kalea 5 / Osinalde industrialdea

Espedientea jendaurrean jarri zen (GAO, 213. zenbakia, 2013ko azaroaren 8an). Jendaurreko epealdian ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak berriz, 2013ko azaroaren 25en helarazi zigun ALDEKO osasun-txostena 3984 sarrera zenbakia daraman idatziarekin batera.

Tokiko Gobernu Batzarrak ere, 2013ko abenduaren 20an aldeko informea eman zuen.

Ondoren, Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/98 Euskadiko Lege Orokorrak aurreikusten duen moduan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta



Usurbilgo Udala



Ingurumen Sailak aipatu jarduera sailkatu eta dagozkion neurri zuzentzaileak ezarri zituen.

Guzti hau kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** GAPI SEALIN SYSTEM, S.L.U. enpresari, Osinalde industrialdeko Ondarzulo kalea 7an poliamida edo poliuretanozko pieza zilindrikoak juntura torikoetan bihurtzeko eta pieza hauek biltegitratzeko jarduera ezartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Aldeko Egiaztapen Akta lortu arte, inolaz ere jarduerarik ez da legeztatuko.
- Akta hori eskuratzeko, eskatzaileak alde aurretik Udalari eskatu beharko dio Egiaztapen hori burutzea. Eskaerarekin batera aurkeztuko da, Obra eta -instalazioetako Zuzendari Teknikoak egindako Ziurtapena, non zehaztuko baita aipatu instalakuntza eta obrak emandako baimenaren arabera eraiki direla. Era berean industria sailak luzatutako baimena aurkeztuko da.
- Baldin eta aipatu egiaztapenerako eskaera aurkeztu baino lehen, makina edo instalakuntzen funtzionamendua egiaztatzeko frogaren batzuk egin behar balira, titularrak bost egun aurretik Alkateari adierazi beharko dio, froga horren iraupena zehaztatuz eta ingurua, pertsonak eta ondasunak arriskuan ez direla jarriko garantizatuz;froga horiek egiterakoan Udaletxeko Teknikoek bertaratzerik izango dute.

**BIGARRENA:** Jose M. Roteta Zuriarrain arkitekto teknikoak 2012ko otsailan idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obra eta instalazioak, beti ere, jarraian aipatuko diren baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.

**HIRUGARRENA:** Neurri Zuzentzaileak. Jarduerak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak ezarritako ondokoak bete beharko ditu:

1. Erakunde Tekniko aginpidedunek oro har aplikatzeko ematen dituzten berriazko arauak bete behar dira.
2. Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen 10. artikulua dioenez, lurzorua kutsatuta dagoela adierazten duen zantzurik antzematen bada, egoera horren berri berehala eman behar zaie Udaletxeari eta Ingurumen Sailburuordetzari, horiek hartu beharreko neurriak zehaztu ditzaten.
3. Zarata kutsadura saihesteko neurriak jarriko dira martxan, eragin akustiko txikiagoa duten teknologia aplikatuta, kontuan izaki Eskuragarri dauden Teknikarik Onenak, hau da, teknikoki eta ekonomikoki bideragarri diren eta kutsadura gutxien sortzen duten teknologiak, eta aintzat harturik zarataren igoeraren ezaugarriak, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea



Usubilgo Udala

garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuak eta gainerako araudiak ezarritako zarata mugak zorrotz beteta, zonakatze akustikoari, kalitate xedeei eta jaulkitze akustikoei dagokienez.

4. Dardarak aldameneko nabe eta lokalen egiturei transmititzea ekiditeko, beharrezkoa den makinerian dardaren aurkako elementu egokiak ezarriko dira.
5. Jarduerak sor dezakeen kutsadura atmosferikoa murrizteko eta auzokideak gogaitu ditzakeen usainik ez sortzeko, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu titularrak instalazioen diseinuari eta ustiapenari dagokienez
6. Jakinarazpen izapidetzea egin behar duen atmosfera kutsa dezaketen jarduera bezala, titularrak Atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen, abenduaren 27ko, 278/2011 Dekretuak 16. artikuluan ezarritakoa bete beharko du. Bertan jardueraren osoko edo partekako hasieraz geroztik 6 hilabeteko epea ezartzen da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazpena egiteko. Behin jakinarazpena egin ondoren, titularrak izapide hori egin izana justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du Udalean.
7. Era berean, Jarraibide teknikoak ematen dituen Atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretua garatzeko den, 2012ko uztailaren 11ko, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren Aginduak ezarritako baldintzak beteko dira.
8. Saneamendua banatzailea izango da eta ondo definituak eta independenteak izango diren ondoko sareak edukiko ditu:
  - Pabiloiaren estalkietako urak jasoko dituen poluitu gabeko euri-uren sarea.
  - Hondakin-uren sarea. Bertako isuriak saneamendu-sarera konektatuko dira. Jarduerari ekin aurretik, titularrak kolektorera Isurtzeko Baimena (erakunde aginpidedunek emandakoa) aurkeztu beharko du Udaletxean.
9. Komunetan sortutako isurketa likidoak baino ez dira egongo.
10. Sortutako hondakinak, Hondakinen eta kutsatutako lurzoruen, uztailaren 28ko, 22/2011 Legean ezarritakoaren arabera kudeatuko dira udal-araudiaren kalterik gabe.
11. Espreski debekatuta geratzen da sortutako hondakin tipologia desberdinak nahastea, nahiz arriskutsuak zein ez arriskutsuak izan. Hondakinak jatorrian banatuko dira eta aipatutako nahasketak ekiditearren hondakinak jasotzeko eta biltegitratzeko baliabide egokiak eduki beharko dira.
12. Hondakinen sorkuntza ahal den heinean murriztu beharko da edo, bere kasuan, uztailaren 28ko, 22/2011 Legeko 8 artikuluan ezarritako hierarkiak adierazitako lehentasunaren ordenarekin kudeatuko dira hondakin horiek,



Usurbilgo Udala



hau da: prebentzioa, berrerabilpenerako prestaketa, birziklapena eta beste balorizazio mota batzuk, balorizazio energetikoa barne. Arrazoi tekniko edo ekonomikoengatik aipaturiko prozedurak aplikatu ezin badira, ingurumenaren gaineko eragina ekidin edo ahal bezain beste murrizteko eran eliminatuko dira.

13. Sortutako hondakin ez arriskutsuei buruz (poliamida eta poliuretanozko hondakinak, papera, kartoia, egurra, hondakin metalikoak, etab.-en hondakin garbiak.), hondakin lehen aldiz kudeaketa- instalazio batera eramane aurretik jardueraren titularrak hondakin ez arriskutsuen adierazpena egin beharko du. Horretarako hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzeko, otsailaren 24ko, 49/2009 Dekretuko VI. eranskinean agertzen den inprimakia erabili beharko du.
14. Konpresoreko purgetako urak, mozketen hozketarako likidoak, ura salbu, erabiltzen badira, eta orokorrean arriskutsu kontsideratutako gai/prestakinen hondakinak sortzekotan, horiek gorde dituzten ontziak, kutsatutako iragazkiak, xurgatzaileak, trapuak eta kotoiak, eta hodi fluoreszenteak, merkuriozko lanparak etab. deuseztatu nahi izatekotan, dagozkien baldintzak betez jasoko dira, hau da, Hondakinen eta kutsatutako lurzoruen, uztailaren 28ko, 22/2011 Legeak, Tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzko, otsailaren 25eko, 208/2005 Errege Dekretuak eta hondakin arriskutsuei buruzko gainerako araudian ezarritakoa jarraituz. Eramane aurretik estalita biltegitratu beharko dira.
15. Aipatutako uztailaren 28ko, 22/2011 Legeko 29. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta izaera sektorialeko gainontzeko araudiak ezarritakoaren kalterik gabe, hondakinen sortzaile aurrekomunikazioa aurkeztu beharko da jarduera abian jarri aurretik Ingurumen Sailburuordetzan. Komunikazio honen edukia Legearen VIII eranskinean aipatutakoa izango da.
16. Sortutako hondakin arriskutsuak mantenu lanetan hirugarren batzuek sortutakoak besterik ez badira, eta hauek hondakinak euren kargu hartu eta eurenak balira bezala kudeatuz gero, puntu hori bi aldeek sinatutako kontratuan agertu beharko da. Kontratu hori da uztailaren 28ko, 22/2011 Legeko 29. artikuluan adierazitako komunikazioa egitetik salbuesteko eskaera egiteko enpresak aurkeztu beharko duena.
17. Aurkezten dituen ezaugarri kimikoengatik lurzoruera eraldatu edo kutsatzeko gai den edozein materialen biltegitratzea euren arteko bateraezintasuna kontua izanik egingo da, beti ere biltegitratutako produktuei iragazgaitz, erresistente eta eraldaezina izango den, eta istripuz gerta daitezkeen isurketei eustea ahalbidetzeko eran diseinatu eta instalaturiko lurzoru gainean, eta hauek jasotzeko sistema batez hornitua egongo delarik. Haizea, uholdeak, euria edo ibilgailuen joan-etorrien ondorioz produktuak biltegi gunetik kanpora arrastatzea edo isurtzea ekiditeko beharrezko neurriak hartuko dira.
18. Likido kutsakorren isuriak sor ditzakeen makineriak likido horien atxikipenerako sistema estanko bat eduki beharko du eta hauen ekintza



Usurbilgo Udala

fisiko eta kimikoari eutsi. Sistemaren bolumena atxikiko dituen likidoek gainezka egitea ekiditeko adinakoa izango da. Kubetoan atxikitako isurketak sortzen direnean jasoko dira, eta aurreko neurrian deskribatutako baldintzetan biltegiatuko dira kudeatzaileak jaso arte, horrela kubetoa uneoro hutsik eta funtzional egon dadin.

19. Pabiloiaren zorua egon daitezkeen isurketa posibleekiko iragazgaitza izan beharko da.
20. Titularrak berehala informatu beharko dio Administrazioari kanpoko ingurunea kutsa dezakeen istripu edo jazoerarik ematen bada.
21. Suteen aurkako neurriek erakunde eskudunak ezarritakoa jarraituko dute.
22. Titularrak dagozkion Ekonomiaren garapen eta lehiakortasun Sailak ematen dituen egiaztagiriak edukitzeko beharrezkoa den eskaera egin izana frogatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du Udalean.
23. Proiektuan jasotzen diren zehaztapen eta neurri zuzentzaileak derrigorrez bete beharko dira, beti ere aurrez aipatutako neurrien aurka ez doazenean.
24. Txosten honetan ezarritako neurri zuzentzaileak aurkeztutako proiektuari buruzkoak dira, jardueraren funtsezko edozein zabalkunde edo aldaketa legalizatu egin beharko da, horretarako Udalean dagokion izapidetzea egin beharko delarik, dagokion lizentzia lortu xedez.

**LAUGARRENA:** Obrak amaitutakoan hurrengoak aurkeztuko dira:

- Gai den teknikariak izenpetutako eta Elkargoak bisatutako amaiera ziurtagiria, burutu diren instalazioak aurkeztutako proiektuarekin bat datozela, eta ezarritako neurri zuzentzaileak bete direla adieraziz. Obren kitapena.
- Elektrizitateko instalazioaren Industria Ordezkaritzak emandako baimena.
- Ur hartunea izan ezkerro, ur edangarriko instalazioaren Industria Ordezkaritzak emandako baimena.
- Aurrealdeko argazkia.
- Eusko Jaurlaritzako "SUTEEN AURKAKO BABES INSTALAZIOA ZERBITZUAN JARTZEKO DOKUMENTUA"

**BOSGARRENA:** Aldez aurretik ondorengo Udal zerga ordainduko da:

- Obra eta Instalazioen zerga
- Argitalpenak

**SEIGARRENA:** Obra burutzeko zoru publikoan kontainerra jarri behar izanez gero, Udal baimena eskatuko da horretarako prestatuta dagoen inprimakia erabiliz. Hartuko den azalera eta, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuko dira.

**ZAZPIGARRENA:** Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:



Usurbilgo Udala

- Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra
- Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko
- Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
- Obrak lizentzi ematen den egunetik HILABETE baino lehen hasiko dira eta beste SEI HILABETEAN bukatuko dira.

**ZORTZIGARRENA:** Jardueraren errotulazioa euskaraz jarriko da, udal honek Euskararen erabilera normalizatzeko onartuta daukan udal ordenantzaren arabera; hala eskatuko balitz, udal honek horretarako beharrezko laguntza tekniko eskainiko du.

**BEDERATZIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

### **3.- ZUBIAURRENEA KALEA 5 ETXEKO JABEKIDEEI ZUBIAURRENEA KALEA 5 ETXEAN IGOGAILUA JARTZEKO OBRAK HASTEKO HIRU HILABETEKO LUZAPENA ONARTZEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2013-0285

ZUBIAURRENEA KALEA 5 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen JOSE ANGEL IRADI UDABE jaunak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2013ko uztailaren 26an Zubiaurrenea kalea 5 etxean igogailua jartzeko emandako udal baimenaren luzapena eskatzen du.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2013ko uztailaren 26an hitzez hitz ondoko erabakia hartu zuen:

**LEHENDABIZI:** ZUBIAURRENEA KALEA 5 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen MARINA LERTXUNDI andereari, Zubiaurrenea kalea 5 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

1. Marin Lertxundi arkitektoak 2013ko apirilean idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak beren txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Igogailua ezartzeko egin beharreko obra lanek indarrean diren *Eraikuntzaren Kode Teknikoa, 20/1997 Legea irisgarritasuna sustatzeakoa, 68/2000 Dekretua hiri-inguruneen, espazioa publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena* eta *Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioak* bete beharko ditu.
- Proiektuaren arabera, portalean, kanpotiko koska, 2,5 cm.takoa, aldapatxo baten bidez ordezkatu da eta bestetik, proiektuaren egileek igogailuaren barne dimentsioak 0,9x1,2m izatea justifikatu dute, behe solairuean jarduera bati eragiten dion heinean, 68/2000 Dekretua betetzen duelarik. Horrekin batera, ezinbestean 0,8m-ko gutxieneko ate zabalera eta 1,4 m gutxieneko diametroan zirkunferentzia trazatu ahal beharko da solairuetako igogailu aurretan. Ontza ematen da, beti ere, obren egikaritzak araudia betetzen duen artean.



Usurbilgo Udala

- Barne patioan igogailuak ezartzeak ezingo ditu etxebizitzetako bainugela eta sukaldeen aireztapen baldintzak kaltetu eta horrekin batera, eskaileraren aireztapen eta argiztapena ziurtatu beharko da. Beraz, dagozkion neurriak hartu beharko dira, proiektuk eta egikaritzak aplikatu beharko dituenak.
- Ezinbestean bete beharko da soinuen inguruan indarrean dagoen araudia; zehazki 37/2003 Hotsaren Legea eta hura garatzen duen 1367/2007 dekretua. Etxebizitza barnetan ezingo dira finkatutako soinu baremo gehiengoak gainditu eta beharrezkoa balitz horretarako neurri/obra gehigarriak hartu/egin beharko dira bai proiektuan eta baita obren egikaritzan.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
  - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - Obraren egikaritza epe gehiengoa: urte 1.
- 2. LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA: Obren egikaritzan zehar lurzoru publikoa okupatu behar bada (puntu garbiarekin, adibidez), berariazko baimena lortu beharko da.
- 3. Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
  - a) Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
    - ✓ Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigitaturik eta Kolegioan bisaturik.
    - ✓ Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.
    - ✓ Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm.akoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozela adieraziz.
    - ✓ Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
    - ✓ Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak igogailua funtzionamenduan jartzeko baimen ziurtagiria.
- 4. Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
  - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
  - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
  - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberrako segurtasun neurriak beteko dira.



Usurbilgo Udala



- Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

Orain berriz, komunitate barruan izandako arazoak tarteko obrak ezin izan direla hasi eta, JOSE ANGEL IRADI UDABE jaunak obrak hasteko epea luzatzea eskatzen du.

Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkunek, ondoko txostena eman du:

**EE2014\_04\_015**  
**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate andreari**  
**OBRA NAGUSIAK**

---

**ZUBIAURRENEA KALEA 5-EAN IGOGAILUA JARTZEKO**  
**OBRALANEN HASIERA EPE LUZAPEN ESKAERARI TXOSTENA**

---

KOKAPENA: Zubiarrenea kalea 5, Usurbil  
ESKAERA DATA; 2013ko abenduaren 20a  
ESKATZAILEA; Zubiaurrenea kalea 5eko jabekideak.  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2013-0285

---

**AURREKARIAK**

- 2013ko ekainaren 21ean Zubiaurrenea kalea 5eko jabekideek igogailua jartzeko udal baimena eskatu dute Udalean.
- 2013ko uztailaren 21ean udal arkitektoak ALDEKO txostena baldintzekin, horien artean:

“ OBRA BAIMENAREN EPEAK:

- o **Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.**
- o **Obrak egikaritzeko epe gehiengoa: 1 urte.**
- o **Obren etenaldi gehiengoa: 6 hilabete.”**

- 2013ko uztailaren 26an Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia igogailua ezartzeko udal baimen emanaz.
- 2013ko abenduaren 20an interesatuen idatzia emandako udal baimenaren epea luzatzeko eskaera eginez.

Erlazionatuak; HZ13/013-0111: Zubiaurrenea kalea 5ean igogailua jartzeko hirigintza kontsulta.

- 2013ko martxoaren 1ean Zubiaurrenea 5eko jabekideek hirigintza kontsulta egin dute Zubiaurrenea 5ean igogailua jartzearen inguruan.
- 2013ko apirilaren 9an udal arkitektoak txostena idatzi zion.
- 2013ko apirilaren 24an Alkatearen 2013/0418 Dekretua kontsultari erantzunez.





Usurbilgo Udala



## TXOSTENA

Jose Angel Iradi Udabe jaunak, Zubiaurrenea 5 jabetza Komunitatearen izenean eskaera aurkeztu du, Tokiko Gobernu Batzarrak 2013ko uztailaren 26an Zubiaurrenea 5ean igogailua jartzeko emandako udal baimenaren epea luzatzea eskatuz. Horretarako aurkeztu den dokumentazioa da; idatzia eta 2013ko azaroaren 13ko Jabekideen ezohiko batzar orokorraren akta.

Tokiko Gobernu Batzarrak emandako udal baimenean, obrak hasteko 6 hilabeteko epea ezartzen zen.

Aurkeztu idatzian azaltzen denez, “komunitate barruan arazo ezberdinak direla eta, oraindik lanak ez dira hasi” eta baimena berrestea eskatzen da.

Administrazioak ezarritako epeen luzatzearen inguruan, 30/92 Legeak honakoa finkatzen du.

“ art. 49. Ampliación: 1. La Administración, salvo precepto en contrario, podrá conceder de oficio o a petición de los interesados, una ampliación de los plazos establecidos, que no exceda de la mitad de los mismos “

## ONDORIOAK

Beraz, goian aipatutakoari jarraiki, obrak hasteko HIRU HILABETEKO epe luzapena onartzen da, aurreko epea amaitzen denetik kontaktzen hasita.

Obrak egikaritzeko epe gehiengoa eta obren etenaldi epe gehiengoa Tokiko Gobernu Batzarrak emandako baimenean ezarritako berak izango dira.

Usurbilen, 2014ko urtarrilaren 21ean  
UDAL ARKITEKTOA  
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** ZUBIAURRENEA KALEA 5 ETXEKO JABEKIDEEI Zubiaurrenea kalea 5 etxean igogailua jartzeko obrak hasteko HIRU HILABETEKO luzapena onartzea, aurreko epea amaitzen denetik kontaktzen hasita.

Obra burutzeko Tokiko Gobernu Batzarrak 2013ko uztailaren 26ean emandako baimenean ezarritako baldintza guztiak bete beharko dira.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari emango zaio.



Usurbilgo Udala

#### 4.- 2013AN NEKAZARITZA ETA INGURUMEN ARLOKO EGITASMOAK BURUTZEKO ONARTUTAKO DIRU-LAGUNTZEN BIGARREN ZATIA ORDAINTZEA.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2013ko urtarrilaren 29ako bilkuran, besteren artean 2013an nekazaritza eta ingurumen arloko egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak onartzea erabaki zuen.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2013ko maiatzaren 31ean eginiko bilkuran, zera erabaki zuen hitzez hitz:

(...)

**BIGARRENA:** 2013an nekazaritza eta ingurumen arloko egitasmoak burutzeko ondoko diru-laguntzak onartzea:

Taldea	Ekintza	Babestutako aurrekontua	Diru-laguntza
<b>Gipuzkoa Zero Zabor</b>	Hondakinek ez dutelako zertan zabor izan erakusketa	900,00 €	900,00 €
	Konpostatzaileen eguna	1.800,00 €	1.800,00 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>2.700,00 €</b>	<b>2.700,00 €</b>

**HIRUGARRENA:** Oinarrietako 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, onartutako diru-laguntzen % 75a ordaintzeko agintzea Kontuhartzaitzari, 1.6100.480.442.10.01.2013 aurrekontu-partidatik:

Taldea	Ekintza	Diru-laguntzaren %75a
<b>Gipuzkoa Zero Zabor</b>	Hondakinek ez dutelako zertan zabor izan erakusketa	675,00 €
	Konpostatzaileen eguna	1.350,00 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>2.025,00 €</b>

Onuradunei ondokoa gogoraraztea: gainerako %25a, eskaera egiteko aurkeztu zen aurrekontu osoari dagokion gastua, eta ez diru-laguntzaz ordaindutakoari bakarrik, justifikatu ondoren ordainduko dela. Eta kontuan izango dira, halaber, oinarrietako 12. artikuluan aipatzen diren aspektu guztiak.

2014ko urtarrilaren 8an, Gipuzkoa Zero Zabor taldeak diru-laguntza zuritzeko dokumentazioa aurkeztu zuen.

Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegik, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean 2014ko urtarrilaren 10ean ondoko txostena eman du:

TXOSTENA TEKNIKOA  
KUDEAKETA

**GAIA:** 2013AN NEKAZARITZA ETA INGURUMEN EGITASMOAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK. ZURIKETA.



Usurbilgo Udala



**UDAL TEKNIKARIA: IBON GOIKOETXEA RETEGI**

**DATA: 2014-01-10**

**ESPEDIENTE ZBKIA: HZ.02/2013-0043**

---

#### AURREKARIAK

- 2013ko otsailaren 6an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, nekazaritza eta ingurumen egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren.
- 2013ko maiatzak 31an tokiko gobernu batzarrak behin betikoz onartu zuen Gipuzkoa Zero Zaborri diru-laguntza ematea.
- 2014ko urtarrilak 8an Gipuzkoa Zero Zaborrek diru-laguntza zuritzeko txostena aurkeztu du.

#### AZTERKETA ETA PROPOSAMENA

Gipuzkoa Zero Zabor taldeari emandako diru-laguntzak 2 jarduera zituen helburu, lehena konpost egunak antolatzea eta bestea hondakinen prebentzioarekin lotutako erakusketa prestatzea.

Zuriketa txostena ikusirik, 2 ekimenak gauzatzeko lanak egin direla, lanak proposamenean azaldu bezala aurkeztu eta zuritu direla, hurrengoa proposatzen dut:

Gipuzkoa Zero Zaborrek aurkeztutako zuriketa txostenari aldeko txostena igortzea eta ondorioz 2013ko nekazaritza eta ingurumen egitasmoak gauzatzeko dirulaguntzetatik falta den %25-a ordaintzea.

Ibon Goikoetxea Retegi  
Ingurumen eta Nekazaritza teknikaria

Gauzak horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

#### **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** 2013an nekazaritza eta ingurumen arloko egitasmoak burutzeko onartutako diru-laguntzen azken % 25a ordaintzeko agintzea Kontuhartzaitzari, 1.6100.480.442.10.01.2013 aurrekontu-partidatik:

Taldea	Ekintza	Diru-laguntzaren %25a
Gipuzkoa Zero Zabor	Hondakinek ez dutelako zertan zabor izan erakusketa	225,00 €

---



Usurbilgo Udala

---

Konpostatzaileen eguna 450,00 €

---

**GUZTIRA 675,00 €**

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta kontuhartzaitzari ematea.

**5.- 2013KO KULTURAKO DIRU-LAGUNTZAREN 2. ZATIA ORDAINTZEA HAINBAT ELKARTERI.**

2013eko otsailaren 6an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren eskaerak aurkezteko hogei laneguneko epea emanez.

2013eko maiatzak 31ko Tokiko Gobernu Batzarrean diru-laguntzaren lehenengo zatia ordaintzeko erabakia hartu zen. Gainerako %25a, diru-laguntza justifikatu ondoren ordaindu behar zen.

Orain, hainbat ekintza antolatzeko emandako diru-laguntza modu honetara justifikatu dute:

**EHAZE**

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
55. Usurbilgo antzerki eskola	750,00 €	562,50 €	EZ DA EGIN	-562,50
<b>Itzulpena Guztira</b>				<b>-562,50 €</b>

**Santuenea Kultur Elkarte**

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
72. Danborrada	76,00 €	57,00 €	Gastuak:152,06 € Sarrerak: 77,06 73. ekintzako soberakina: 1€ Guztira gastuak: 76,00 €	19,00
73. Pintura eta plastika tailerra	1.806,00 €	1354,50 €	Gastuak:3.696,68 € Sarrerak: 496,68 € Guztira gastuak: 3.200,00 € Soberakina:1.394,00 €	451,50
74. Hipo eta Tomas pailazoak	855,00 €	641,25 €	Gastuak:1061,34 € Sarrerak: 161,34 € Guztira gastuak: 900,00 Soberakina: 45,00 €	213,75
75. Zoo-Zoom antzerkia	1.425,00 €	1.068,75 €	Gastuak:1.599,55 € Sarrerak: 99,55€ Guztira gastuak: 1.500,00 € Soberakina:75,00 €	356,25
76. San Juan Sua eta sardin jana	332,50 €	249,38 €	Gastuak:351,17 € Soberakina: 18,67 €	83,12



Usurbilgo Udala

77. Kantu Afaria	380,00 €	285,00 €	Gastuak:400,00 € Soberakina: 20,00 €	95,00
78. Argazki lehiaketa	237,50 €	177,75 €	Gastuak:235,80 € 73. ekintzako soberakina: 1,70 € Guztira gastuak: 237,50 €	59,38
79. Gabonak, Santa Lutzia eta Santo Tomas	703,00 €	527,25 €	Gastuak:852,13 € Soberakina: 149,13 €	175,75
83. Ludoteka	935,75 €	701,81 €	Gastuak:998,65 € Soberakina: 62,90 €	233,94
<b>Guztira</b>				<b>1.687,69€</b>

#### Irii Abesbatza

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
6. Funtzionamendu eta ekintza gastuak	541,50 €	406,13 €	Gastuak:152,06 €	135,38
<b>Guztira</b>				<b>135,38 €</b>

#### Zubieta Lantzen

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
52. Santa Ageda kantu eskea	475,81 €	106,88 €	Gastuak: 180,00 € Soberakina: 37,50 €	35,63
53. Bertso Musikatua	427,50 €	320,63 €	Gastuak: 500,00 € Soberakina: 72,50 €	106,88
54. Euskal Jaia	1.009,85 €	757,39 €	Gastuak:1.263,00 € Soberakina: 253,15 €	252,46
<b>Guztira</b>				<b>394,97 €</b>

#### Kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- 2013ean kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2013/02/06).

Guzti hau horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### ERABAKIA

**Lehenengoa:** Honako eskatzaileak kultura arloko diru-laguntzaren itzulketara egin du 2013-10-08ko datarekin.

Eskatzailea	Ekintza	Itzulketara
EHAZE	55	-562,50 €

**Bigarrena:** Honako eskatzaileei kultura arloko diru-laguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

Eskatzailea	Ekintza	Ordainketa
Santuenea Kultur Elkarte	72-73-74-75-76-77-78-79-83	1.687,69 €



Usurbilgo Udala



Iriu Abesbatza	6	135,38 €
Zubieta Lantzen	52-53-54	394,97 €

**Hirugarrena:** Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da: 1.4000.481.451.10.03.2013 (A/ 342-2013)

**Laugarrena:** Interesatuari akordioaren berri emango zaio.

**Bosgarrena:** Kontu-hartzailetzari akordioaren berri emango zaio, ordainketa egiteko orria erantsiz.

## 6.- 2014AN GIZARTE ZERBITZUEN ARLOAN EGITASMOAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK.

### Ikusirik

Usurbilgo Udalak, elkarteek, bestelako erakundeek eta norbanakoek gizarte zerbitzuen arloan egiten dituzten ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, diru-laguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu 2014. urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

Oinarri hauen helburua 2014. urtean gizarte zerbitzuen arloan egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri diru-laguntzak ematea da. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. Kapitulua I. Atalak ezartzen duena.

Hori horrela, 2014ko urtarrilaren 16an egindako Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzordean 2014. urtean gizarte zerbitzuen arloan egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarrien berri eman zen.

### Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** 2014. urtean Gizarte Zerbitzuen Arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi erantsen zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidaren azaltzen den diru izendapena: 1.8000.481.313.90.03. Diru-laguntza irekiak: elkartearen asmoak.

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.



Usurbilgo Udala

**Laugarrena:** Hogei lan eguneko epea ematea interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

**Bosgarrena:** Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

## 7.- 2014AN KIROL EGITASMOAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK.

### Ikusirik

Usurbilgo Udalak, kirol elkarteek, bestelako kirol erakundeek eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten kirol ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, diru-laguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu 2014. urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

Oinarri hauen helburua 2014. urtean kirol egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri diru-laguntzak ematea da. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. kapituluaren I. Atalak ezartzen duena.

Hori horrela, 2013ko abenduaren 23ko Kirol Batzorde Informatzailean 2014ko kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarrien berri eman zen.

### Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** 2014an Kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi eransten zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidan azaltzen diren diru izendapenak:

1	43	00	481	452	10	01	Kirol-taldeen ohiko diru-laguntza zuzenak
1	43	00	481	452	10	02	Gizon eta emakumezkoen berdintasun plana
1	43	00	481	452	10	04	Kirol-teknikoen prestakuntza
1	43	00	481	452	10	05	Egitura sendotzeko laguntza
1	43	00	481	452	10	06	Gazteen arteko sustapena
1	43	00	482	452	10	01	Laguntza bereziak

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.



Usurbilgo Udala



**Laugarrena:** Hogei laneguneko epea ematea interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

**Bostgarrena:** Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

## **8.- 2014AN NEKAZARITZA ETA INGURUMEN EGITASMOAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK.**

Usurbilgo Udalak, elkarte, erakunde eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten nekazaritza eta ingurumen arloko ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, diru-laguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu 2014. urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

Oinarri hauen helburua 2014. urtean nekazaritza eta ingurumen arloko egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsonei diru-laguntzak ematea da. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. kapituluaren I. Atalak ezartzen duena.

Hori horrela, urtarrilaren 13ko Nekazaritza eta Ingurumena Batzorde Informatzaileetan 2014ko nekazaritza eta ingurumen egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak landu eta hauen berri eman zen.

Diru-laguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01) kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **E R A B A K I A**

**LEHENDABIZI:** Proposamen honi erantsirik doazen 2014an nekazaritza eta ingurumen arloko egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi eransten zaizkiolarik.

**BIGARRENA:** Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidari azaltzen den diru izendapena: 1-6100-480-442-10-01-2014.

**HIRUGARRENA:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

**LAUGARRENA:** Hogei laneguneko epea ematea interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

**BOSTGARRENA:** Oinarrien berri kontu-hartzaileari ematea.

## **9.- 2014AN KULTURA EGITASMOAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK.**

### **Ikusirik**

Usurbilgo Udalak, kultur elkarteek, bestelako kultur erakundeek eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten kultur ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, diru-laguntza





Usurbilgo Udala



deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu 2014. urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

Oinarri hauen helburua 2014. urtean kultur egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri diru-laguntzak ematea da. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. kapituluaren I. Atalak ezartzen duena.

Hori horrela, 2014ko urtarrilaren 23ko Kultura Aholku Batzordean diru-laguntzen gaia landu zen, eta urtarrilaren 20ko Kultura, Euskara eta Gazteria Batzorde Informatzailean 2014ko kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarrien berri eman zen.

### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **E R A B A K I A**

**Lehenengoa:** 2014an Kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi eranstean zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidari azaltzen den diru izendapena: 1.4000.481.451.10.03.

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

**Laugarrena:** Hogei laneguneko epea ematea interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

**Bostgarrena:** Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:50ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**